


# IKASLEEN TXOKOA - Elizatxo ikastola



## Ez izan beldurrik, ura da! / III



**Etorkizunaren bila / II**

Astrologia harrigarria da,  
eta erabilgarria ere bai.  
Utzi berari laguntzen

**Ilargira iritsi al zen gizakia 1969an? / IV**



**Bulling-a eskoletan / III**

**Cannabisaren legalizazioa / IV**



**Arrazakeria futbolean / III**

**Egileen argazkia / IV**



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

## ELIZATXO IKASTOLA


# Etorkizunaren bila

Astrologia harrigarria da eta erabilgarria ere bai. Utzi berari laguntzen!

Horoskopoa astrologiaren atal bat da. Astrologia eta astronomiaren arteko aldea da, bat zientzia dela eta bestea ez.

Astrologia astroen behaketan oinarritutako igarpen-arte da, gertaerak eta gizon-emakumeen nortasun eta patua auresatea helburu duena. Astronomia, ordea, astroen posizio erlatiboa, higidura, egitura eta bilakaera aztertzen duen zientzia da.

Elizatzko BHIko 3. eta 4. mailako ikasleei inkesta bat pasa zaie gaian duten interesa neurtzeko: emaitzen arabera ikasleen %45ek astrologian sinesten du; %55ek, aldiz, uste du dena gezurra dela. Hala ere, %70ek aldizkari bat irakurtzean horoskoporen atalari begiratzen dio, eta beraz, nahiz eta ez sinestu, jendeak interesa baduela ikusten da.




### Zein da zure horoskopoko signoa?

15-16 urteko ikasleen artean egindako inkestak diotenaren arabera gehien eza-gutzen den horoskopoz mintzatuko gara, hau da, 12 signotan banatzen dituen urteko 365 egunak.


**Aries:**  
martxoak 21-apirilak 20

 Zodiakoko lehenengo signoa, suzko signoa, Martek zuzendua. Bere sinboloa aharia da. *Mittoa:* Frixok, Neteleren semeak, alegia, Biadice bahitu zuela uste zuten eta horregatik Frixo hiltzea agindu zuen Zeusek. Hiltzera zihoazenean, urrezko ahari batek salbatu zuen eta bere ahizpa Helerekin ihes egin zuen. Ondoren aharia hil zuten Zeusen omenez.


**Tauro:**  
apirilak 21-maiatzak 21

 Zodiakoko bigarren signoa, lehorrekoa, Venusek zuzendua. Bere sinboloa zezena da. *Mittoa:* Europa bizkar gainean eraman zuen zezen zuria da. Uste da, zezen hori Zeus bera zela.


**Geminis:**  
maiatzak 22-ekainak 21

 Zodiakoko hirugarren signoa, haizezkoa, Merkuriok zuzendua. Bere sinboloa bikiak dira. *Mittoa:* Berez ez dauka mitorik. Baina Egipton *Bi izarrak* izenarekin ezagutzen zuten.

**Cancer:**  
ekainak 22-uztailak 23

 Zodiakoko laugarren signoa, urezko signoa, Ilargiak zuzendua. Bere sinboloa karramarroa da. *Mittoa:* Egipton bi dortoka izenpean ezagutzen zuten

**Leo:**  
uztailak 24-abuztuak 23

 Zodiakoko bosgarren signoa, suzko

signoa, Eguzkiak zuzendua. Bere sinboloa lehoia da. *Mittoa:* Nemea lehoiari buruzkoa da. Herkulesek hil zuena, hain zuzen ere.

**Virgo:**  
abuztuak 24-irailak 23


 Zodiakoko seigarren signoa, lehorreko signoa, Merkuriok zuzendua. Bere sinboloa birjina da. *Mittoa:* Hesiodok zioenez, Virgo Zeusen eta Temisen jainkosa. Urrezko adina bukatu zenean gizonezkoek bere autoritatea desafiatu zuten eta hau nahigabetuta firmamentura itzuli zen.

**Libra:**  
irailak 24-urriak 23

 Zodiakoko zazpigarren signoa, haizezko signoa, Venusek zuzendua. Bere sinboloa balantza orekatu bat da. *Mittoa:* Berez ez dago inongo mitorik. Baina K.a. 2000. urte aldera konstelazioak hildakoen eta bizidunen azken epaiketa egin zuen. Bertan

Zibanitu balantzak bakoitzaren arima pisatu zuen.


**Escorpio:**  
urriak 24-azaroak 22

 Zodiakoko zortzigarren signoa, urezko signoa, Plutonek zuzendua batez ere, baina baita Martek ere. Bere signoa eskorpioa da. *Mittoa:* Junoren enkarguz eskorpioa lurrera igo zen Orioni erasotzeko.

**Sagitario:**  
azaroak 23-abenduak 21


 Zodiakoko bederatzigarren signoa, suzko signoa, Jupiterrek zuzendua. Bere sinboloa zentauroa da. *Mittoa:* Sagitario, bere bi aurpegiekin, gizakia eta animalia Quiron zentauroa izan zen. Honek Aquiles hezi zuen.

**Capricornio:**  
abenduak 22-urtarrilak 20


 Zodiakoko hamargarren signoa, lehorreko signoa, Saturnok zuzendua. Bere sinboloa ahuntza da.

*Mittoa:* bere mitoa ez dago oso argi nahiz eta uste den Ea-ri buruzkoa dela.

**Acuario:**  
urtarrilak 21-otsailak 19

 Zodiakoko hamaikagarren signoa, haizezkoa, Saturnok eta Uranok zuzendua. Sinboloa urezko ontzi bat da. *Mittoa:* Hasiera batean, erditze eta sendagaien jainkosa bezala irudikatu zen. Ondoren, ordea, Api jainkoa bere ontziekin ureztatzen irudikatzen du.

**Piscis:**  
otsailak 20 - martxoak 20

 Zodiakoko hamabigarren signoa, urezko signoa, Neptunok zuzendua. Bere sinboloa bi arrain dira. *Mittoa:* Venus eta Cupido, Tifon erraldoiak izututa, Eufrates ibaira saltatu ziren eta arrain bihurtu ziren. Gertaera hori gogoratzeko Minervak firmamentuan ezarri zuen mitoa.

# Ez izan beldurrik, ura baino ez da

URRIAREN 3tik 14ra bitartean, Mundakan munduko 40 surflaririk onenetarikoak bildu dira *Mundaka Billabong pro-txapelketan* parte hartzeko. Proba honek munduko txapelketarako puntuatzen du eta hori dela eta, munduko txapelduna zen Kelly Slaterrek lehen postua galdu du Bobby Martinez-en eskutik.

## Surfa Euskal Herrian

Surfa munduko kirol zaharretarikoa da, badirudi jatorria Polinesian, Ozeano bareko uharteetan, duela. Baina surfa kirol berri samarra da Euskal Herrian. 1980ko hamarkadan sortu eta zabaldu zen gutxi gora-behera. Ordutik, kirol hau indartu egin da gure inguruan. Batez ere, atzerritarren bitartez izan genuen kirol honen berri. Hauek alde egin zutenean, hemengo jendeak neoprenoak eta oholak erosten zizkien. Gaur egun, asko dira gure hondartzetan olatuak hartzen ibiltzen diren surf-zale amorratuak, eta egunetik egunera, gero eta gehiago dira. Gure kostaldeko olatuak ez dira izugarri handiak, baizik eta, 2-4 metrokoak. Dena den, adituek diotenez, oso kalitate onekoak dira.

## Euskal Herriko olaturik onenak eta arriskutsuenak, Bizkaian

Bizkaiko golkoa bazterrik entzutetsuena da: Erega, Mundaka, Laga, Sopelana, La Salvaje, Meñakoz, Barrika, Bakio... Euskal Herriko olaturik ospetsuena Mundakako ezker olatua da.

## Mundakako olatua

Mundaka, Urdaibaiko biosferaren erreserban dago. Bertako olatua Laidako hondartza eta Mundakakoa bereizten dituen kanalean eratzen da. Bertako olatua hutsa eta luzea da. Hori dela eta, egun batzuetan, Mundakan hartu olatua eta Laidako hondartzan, itsasadarren beste aldean, bukatzeko aukera badago.

Mundu osoko surflariak etortzen dira olatua ikusi eta gozatzera. Baina, zoritxarrez, arazo handia sortu zen Urdaibaiko Untziolak egindako lanen eraginez. Nonbait, lan horiek bertako korrante naturaletan eragina izan zuten, itsasoaren hondoan hondarraren mugimenduak eragin zituztelako. Geroztik olatu berezia desagertu egin zen hilabete batzuz. Zorionez, gaur egun, olatua denboraren poderioz, bere onera bueltatzen ari da. Ez hori bakarrik, Mundaka txapelketak egiteko dauden munduko hamabi hondartza onenen artean dago.

## Olatu arriskutsuak

Egun, Mundaka, Bakio, Sopelana... hondartzak oso entzutetsuak dira; hala ere surflarien artean gero eta ezagunagoak dira beste hainbat leku; olatu arriskutsuagoak, handiagoak, indartsuagoak dituztelako eta itsas hondoan harkaitzak daudelako.

Meñakoz: Barrika eta Sopelana artean dago. Olatu handiak sortzen dira: 1,5 m-tik gorakoak. Batzuetan, 4 metrora iritsi daitezkeenak. Ohol luze-



Mundakako olatua.

ak behar dira Meñakozen surfa egiteko: olatua norberak harrapatzeko, eta ez alderantziz. Trebea izan behar da han sartzeko, eta astiro-astiro sartu behar da harkaitzak non dauden ikusteko, olatuak nondik nora sortzen diren jakiteko... Ur masa handiko olatua da, pikoduna, hau da, hodi forma gutxikoa.

Puntagalea: Getxon dago. Haitzak daudelako da arriskutsua. Metro bitik gorako olatuak sortzen dira, eta arroken kontra gogor jotzen duenez, itsasontzian joatea komeni da. Meñakoz-en baino hodi handiagoa sortzen da.

La central: Lemoiz-en dago. Batez ere, "bodyboard" egiteko lekua da. Olatu oso bortitzak dira. Olatu desitxuratu egiten da, oso bizkorra eta laburra da eta arin iristen da haitzen kontra. Horregatik, ez du surfa egiteko aukera handirik ematen, ez du ia astirik ematen taularen gainean zutik jartzeko.


Ogeia: Ispasterren dago. Aipatutako beste hiru lekuetan baino olatu gutxiago eta txikiagoak sortzen dira. Olatu onak eta indartsuak dira. Ez da hain arriskutsua, baina kontu handiz ibili behar da, itsas hondoan arkaitzak daudelako. ||

## Arrazakeria futbolean

ARRAZAKERIAK gizakiaren jatorria epaitzen du. XVII. mendean ideal arrazistak zituzten pertsonak, Houston Stewart Chamberlain bezalakoek, eragin handia izan zuten jendearengan. Gaur egun, asko dira berdin pentsatzen jarraitzen dutenak.

Azkenaldian futboleko ekintza arrazistak gertatzen ari dira. Adibidez Real Zaragoza - FC Barcelona partiduan, Samuel Eto'ok, Bartzelonako aurrelari camerundarrak, ikusle batzuen irainak jaso zituen. Zoritxarrez, ez zen kasu bakarra izan, arrazakeriak bultzatutako jarraitzaileak beste partidua askotan izan dira, eta izaten jarraituko dute ekintza hauek gelditzeko kanpainak eta neurriak hartzen ez badira.

Batzuek diote, ekintza horiek jokalarien haserrea bilatzeko besterik ez direla eta beste iseketatik ez direla ezberdintzen. Nire aburuz ez da bidezkoa pertsona bat edo talde bat bere jatorri, kultura, pentsamendu edo sinismenak direla eta epaitzea. Noraino iritsi behar dugu? Begi kolore edo ile koloregatik sailkatuko al gaituzte? Batzuk besteak baino hobek al dira? Ez. Orduan zergatik epaitzen ditu-



Samuel Eto'ok.

gu azal kolore ezberdina duten pertsonak?

Gizakiaren sailkapenaren saiakerak ez dute emaitzarik izan. Dakigunez, analisi genetiko bat eginez gero, pertsona baten kolorea azalean baino ez da ikusten, genetikoki denok berdinak baikara. Beraz, arraza bakarra dago: GIZAKIA.

Arrazismoak kiroletik kanpo beharko luke ekintza horien arazoia edozein dela ere. Are gehiago, arrazakeria kirol eta beste toki guztietatik behin bitiko ezabatu beharko litzateke. ||

## Bulling-a eskoletan

GAUR egun, geroz eta gehiago dira haien ikaskideengandik abusu fisiko eta psikologikoak jasaten dituzten ikasleak. Duela urte batzuk lehen kasua azaldu zen telebista, irrati eta egunkarietan eta berri hura entzuterakoan denak harrituta geratu ginen.

Abusu hauek, lehenengo aldiz duela urte batzuk entzun arren, lehenagotik ere ematen ziren, baina ez zitzaizkien kasu handirik egiten, zerbait berria zelako. Azken urtean kexak %500 handitu dira, baina ez dute ezertarako balio izan, abusuak jarraitzen

baitute. Nere ustez lotsagarria da irakasleen %65ek esatea bulling-a bada goela haien eskoletan. Gainera, gaur egun, ikasle batzuek besteak jo ez ezik, agresioak mobilarekin ere grabatzen dituzte eta interneten jartzen dituzte, eta hori bai dela lotsagarria. Horren aurka zerbait egin behar denez, egun hauetan manifestazioak antolatzen ari dira Espainia osoan. Agian batzuei ez zaie garrantzitsua iruditzen pentsatzen dutelako ez dela hainbesteko, baina askorentzat oso garrantzitsua da ez dutelako nahi haien seme-alabei berdina gertatzea.

Lehenago aipatu dudan bezala, gai hau okerrera doa, edo inor ez al da gogoratzen duela bi urte Hondarribin gertaturikoaz? Nerabe baten harresitik salto egin zuen jasandako abusuengatik. Horregatik, ez badugu zerbait azkar egiten gertakizun hauek berriro gerta daitezke eta inork ez du hori nahi. ||



Azken urteetan kexak %500 haunditu dira.

20

zenbakia

# ikasleen txokoa

## Ilargira iritsi al zen gizakia 1969an?

1969ko uztailaren 20an mundu osoa telebistari begira zegoen gizakia ilargira nola iristen zen ikusteko. NASA izan zen lehena ilargira iristen Apolo I misioari esker. Historiako gertakari garrantzitsuena gertatzen ari zen egun horretan. Baina benetan gertatu al zen?

Telebistako programa batean entzun nuen ilargira iritsi zirenekoa zalantzan jarri zutela, eta orain beraiekin bat nator. Nire ustez, ez zen benetan gertatu, nik esango nuke Estatu Batuetako zine estudio batean grabatu zituztela hain ezagunak diren irudi horiek.

Zera esan nahi dut, argazkilaria profesionalak esan dute ilargian ateratako argazkietan zenbait akats daudela, eta NASA-k iruzurra egin zuela zioten.

Alde batetik argazki askotan ez zegoen izarririk ilargiko zeru ilunean. Bestalde, bertan jarritako bandera haizea ibiliko balitz bezala mugitzen zen, eta hori ezin da gertatu ilargian atmosferarik ez baitago; ondorioz ez dago haizeirik. Arrazoi hauek eman eta gero NASA-k esaten du grabazio originalak galdu egin dituela eta ez dituela aurkitzen. New Jersey-ko idazle batek esaten duenez, argazkiak Mercury izeneko herri batean eginda daude. NASA lehia bizian zegoen Sobietar Batasuna-rekin eta horrek eragina zuen NASA-k egin-

dako montaje horretan; horrela NASA-k erakutsiko zuen munduko potentzia handiena zela.

Arrazoi guzti hauek direla eta, uste dut sinesgarria dela ilargira ez ginela iritsi. ■



ANDONI PORTILLO  
Elizatxo ikastola

## Animalien kontrako tratu txarrak

Jakingo duzue, komunikabideetan askotan esan duten bezala urtero milaka txakur eta katu abandonatzen dituzte kale eta errepideetan zehar. Ez dirudien arren, hau tratu txartzat hartu daiteke.

Gai honen inguruan aipatu nahi dut orain dela aste batzuk Galizian gertatutako ekintza bat: Galiziako albaitari batek bere bizilaguna salatu zuen honek zakurrari izugarriko jipoiak ematen zizkio-

lako. Salaketa jarri ahal izateko bideo kamera baten bitartez grabatu zituen ekintza horiek. Txundigarriena bizilagunak txakurraren jabearen alde zeudela izan zen. Gainera, albaitariak poliziaren laguntza behar izan zuen auzokideek astindu nahi zutelako.

Ikusten denez, jendea ez da jabetzen animaliek sufritzen dituzten tratu txarrez.

Espainiako herri askotako jaietan animalien batek tratu txarrak jasotzen ditu.

Esate baterako, Caceresen San Juan de Coriako jaietan herritarrak zezen baten atetik ibiltzen dira ehundaka dardo sartzeko asmotan. Ez hori bakarrik, ondoren tiro batez hiltzen dute animali babesgabea.

Beste festa batean, ahuntz bat botatzen dute kanpandorre batetik; eta hau dena jendeak ondo pasatzeko.

Beste adibide on bat Euskal Herrian bertan gertatzen da, hain zuzen ere, Lekeitioko jaietan. Bertan partaideek zintzilik dagoen antzar baten burua erauzten dute. Izandako kritikak direla eta, neurriak hartu eta antzarrak hilik zintzilikatzen hasi ziren. Baina hau ez zait nahikoa iruditzen. Uda honetan plastikozko antzarrak zintzilikatzea erabaki zuten, baina ez tratu txarrak txikitzeko baizik eta hegaztien gripearen beldur zirelako. Hori dela eta, oso gaizki iruditzen zait beste irtenbide batzuk bilatzea gizakiaren onerako eta

ez animalien babeserako, azken finean ezin dute ezer egin nozitzen dituzten ekintza hauetatik ihes egiteko, izaki babesgabeak eta errukarriak baitira.

Argi dago jende askok animalien sufrimenduari ez zuzaitzen duela, ez baitago ekintza hauek debekatu eta zigortzen dituen legerik. ■

EIDER NAVARRO  
Elizatxo ikastola



## Cannabisaren legalizazioa

Cannabisari buruzko eztabaida modan dago. Aste honetan irratian cannabisaren legalizazioari buruzko eztabaida gogor bat izan da. Batzuk, gazteek batez ere, cannabis legalizatzearen alde egin dute eta beste askok legalizazioaren aurka.

Ni, adibidez, gazteen taldean kokatzen naiz eta droga mota hau legalizatzearen aldekoa naiz, ez osasunagatik, baizik eta justiziagatik.

Ez dut onartuko droga hauek kontsumitzea ona

denik, baditu bere kalteak, baita bere onurak ere. Baina tabakoarekin zerikusirik handiena duen droga mota da, eta nik dakidanez, tabakoa legalizatua dago aspaldidantik.

Marihuana, esate baterako, normalean tabakoarekin nahastuta erretzen da (ez marihuana bakarrik, haxixa eta olio ere bai). Marihuana sendagai bezala onartua dago; erretzeko, ordea, debekatua dago, osasunean kalteak eragiten dituelako. Arrazoirik ez du falta hau esan duenak, baina kalteak eragiteaz gain sendagai bezala erabiltzen da, hau da, sendatzeko ere balio du. Cannabisaz gain badira beste substantzia asko kaltegarriak direnak.

Cannabisaren eta tabakoaren kalteak oso antzekoak dira. Tabakoak minbizirako arriskua dakar eta menpekotasuna ere eragiten du, besteak beste. Cannabisak ere arrisku horiek baditu, baina kasu gehienetan plazerra eta lasaitasuna eragiten ditu, besteak beste. Nik aurkezten ditudan argudioak hauek dira, gutxi badira ere, eta hauekin baliatuko naiz nire iritzia emateko eta jendea nire ikuspuntuan jartzeko.

Tabakoa erretzera ez dago inor behartuta, bakoitzak bere arrazoiak ditu erretzeko ala ez erretzeko, norberak jakingo du zer egin eta bakoitzaren aukeraketa errespetatu egin behar da.

Cannabis ez legalizatzearen aldeko argudioak, gorputzari eragiten dizkion kalteak izaten dira, baina tabakoak ere kalte handiak eragiten ditu eta legalizaturik dago, horregatik, eskatzen dut justizia; edo droga guztiak legalizatzen dira edo ez da drogarik legalizatzen.

Eta denok dakigun bezala ez dira tabakoa eta cannabis kalteak eragiten dizkiguten substantzia bakarrak, badira beste asko oso ezagunak direnak; alkohola, kafea, eta abar. Nahiz eta denok honen berri ez izan, hauek ere gure gorputzerako kaltegarriak dira eta legalizaturik dauden droga bezala kontsideratzen dira.

Nahiz eta askok ez onartu, denok hartu dugu noiz edo noiz drogen bat, kaltegarria dela konturatu edo jakin ez arren.

ANE APEZETXEA  
Elizatxo ikastola

## EGILEAK:

